

**Bertaratuak:** Aritz Otxandiano, Kepa Gonzalez de Audikana, Urtzi Armendariz, Irati Axpe, Iñaki Pujana, Miren Urigoitia, Arkaitz Carrasco, Pello Otxandiano, Amaia Lopez de Heredia, Kimetz Munitxa.

## **1. Garapen teknikariaren lanaren deskargoa**

Dirulaguntza lineak atera dira abuztuan (turismoa, ingurumena, paisaiagintza, kartografia digitala GIS). Dirulaguntza horiei begirako lanak egiten ibili da.

Arnasa eta Lurra prozesuei begirako plan estrategikoen prestaketan aritu da. Abenduan egingo den Foroan aurkeztea espero da.

## **2. Oreka prozesuaren ildo nagusi eta proiektu posibleen azalpena**

“Bestelakoak” atalean jasotako “Oreka: Lan ildoak eta proiektuak 2015/09/29” dokumentuan oinarritu den azalpen luzea eman du Aritzek.

Ondoren honako ekarpenak egin dira:

Dokumentua egokitzat jo da. Ikuspegi integrala dauka eta Otxandioko errealitateari egokituta dago.

Oreka batzordea sortu behar da. Herrian interes hau daukan jendea saretu eta datozen hilabeteetarako ekintza plana zehaztu.

Estrategiak datuetara eramatea proposatu da. Laguntzak egon daitezke horretarako EVeren partetik. Hala ere, gure eskala txikian lan honen eraginkortasuna zalantzan jarri da.

Seigarren ildo estrategiko bat falta da: garraioa. Irisgarritasun plan bat dago. Herri barruko mugikortasuna aztertu ahalko litzateke. Garraio kontsumo handienak industrian eta kanpora lanera doan jendearengan egongo dira.

- Enpresen mugikortasun plan bat egin ahalko litzake.
- P2P garraioa.
- Ibilgailu elektriko komunitarioak.

Eskolara oinez joatea sustatzea aipatzen da (proiektu hezitzaile bezala) eta Otxandiok Durango-Gasteiz autobus zerbitzua hobetzeko egiten duen aldarrikapenak ikuspegi energetiko batetik ere zentzu guztia duela esaten da.

Proposatzen diren ildoak gure eragiteko gaitasunaren arabera diseinatu behar direla aipatzen da. Gauza bat da zer dan teorikoki egin beharrekoa eta bestea zer egiteko

ahalmena dugun. Ditugun errekursoak errentagarritasun sozial handiena ematen duten ildo eta ekintzetan inbertitu behar ditugu.